

DANI BLANCO



Angel Erro

◆ IDAZLEA

Aspertzze santua

LIBURUEN KOPURUA infinitua da (jatorrizko testuak *hamaika* dio, baina arrazoiak daude hitz hori euskaldun baten ahoan infinituaren sinonimoa dela pentsatzeko), gure bizi orduak, berriz, akabera dute. Hots, ezin da dena irakurri. Hori ez dago zertan arazorik izan, eta askorentzat, izan ere, ez da arazoa. Bestetzuek, (zerbait) irakurri nahi dutenek alegia, badute zerk kezka, uztartu behar baitute ahalik eta min gutxienarekin irakurgaien mugagabetasuna eta beraien bizitza hilkorarren murriztasuna. Horrek denboraz melankoliara darma irakurle gaixoa, nola egiazta baitezakeen irakurleren bat ezagutu duen orok.

Irakurleetan gaixoenek –horretaz mintzo, elkarri aitortu diogu irakurle gutxi batzuek– eriondo luzea, lasaia, hemeretzigarren mendekoa, laku baterako ikuspegidun mendiko sendategi batean lotuta egotera behartzen zaituena, desiratu nahi izan dute, dugu, inoiz. Are –aitortzetan haratago joan garenean, gaiarekin sentibera izan daitekeenari aurretiaz barkamena eskatuz, noski– espetzealditxo bat ere bai. Gaurko irakurle batek goian aipatu irakurgaien mugagabetasunak eragindako melankoliari gehitu behar dio eguneroko bizitzak, usadio eta aisialdiaren kudeaketa berriek irakurketa zailtzeak sortzen dion errudun sentimendua, modu inkontzientean –solas berean oharpena egin nuenez– liburuei egiten diegun traizio hori giltzapean garbitzeko prest egoteraino.

Patxi Zubizarretak inoiz aipatu izan nau nik gogoan ez dudana baina gogara esanenukeen zerbait esaten: irakurriko duen azken belaunaldia gara, gaztetan irakurri izan dugu eta horretan plazera aurkitu dugu; irakurtzea, are gauza gogorrak eta zailak irakurtzea ere, gozagarria dela badakigu, hala ere, orain nekeza egiten zaigu astitxoa aurkitzea horretan atsegina dagoela jakin arren; nola konbenzituko ditugu gazteagoak?

Suposatzen dut Zubizarretak hobeki aipatzen nauela ni, nik bera baino. Barkatuko dit.

Alfredo Jaime Iruñeko alkateari behin galdetu zioten oporretan (oporretan, beti oporretan!) zer liburu irakurtzeko asmoa zuen: “Udan aspertzzen denak behar du libururik. Nik ez dut aspertzeko ez irakurtzeko astirik”, bota zuen natural-natural, konplexurik gabe. Erantzunaz txantxa asko egin ziren, pertsonaiaren kaiku ospea nabarmentzera zetozenak; baina, dena den, nik erantzunean arrazoi zati handia sumatzen dut.

Aspertzzea, aspertzze santua! Aitortzen dut haurtzaroan eta gaztaroan aspertzze izan naizela, oso. Orain eskura ditut adiskideak aldiro, elkartzeko ez bada, hitz egiteko edo bestela elkarri idazteko. Orain eskura ditut adiskideak ez diren lagunak ere bai, sare sozialetan edo pribatuagoetan, burutazio laburrak irakurtzeko, txortaldi laburra

egiteko, jendeak zer bizitza daraman bertatik bertara eta uneoro jakiteko. Orain eskura ditut, kultur gehigarrietan adituek diotenaren arabera, narratiba lan asko baino hobeak diren telesailak, euskarazko azpitoluekin. Ariketa horietako askok irakurtzea dakarte, bai. Baina nik, oraindik ere, asperdura goxo, lasai, zahar baten falta sumatzen dut, dagoeneko mundutik aparte baino ez dudana gauzagarri irudikatzen: zahartzaro bare batean edo, lehenago, espetzealdi balizko batean.

Gaztaroaren oroitzapen faltsua, mitifikazio erromantikoa, izan daiteke, onartzen dut. Kartzelarena, zer esanik ez. Idazteko parada ere ematen omen du kartzelak, dio haren gaineko fama on eskasak. Testu hau gainbegiratzeko, argi daukat:

itzalpeko hiru hilabete gutxienez beharko edo mereziko luke. ■



Antton Olariaga

